

DATORRENA

Iruzurrezko kartak

IRATXE URIZAR > 3

ELKARRIZKETA: «Hezkuntza erabili beharko genuke jendarteko arazoak konpontzeko, ez rolak errepikatzeko > 18

2015eko uztailaren 25a | IX. urtea • 426. zbk.
0,50 euro

GAUR8


mila leiho zabalik
www.gaur8.info



LAU MILIOI SIRIAR GERRATIK IHESI

2011 TIK GAUR ARTE, LAU MILIOITIK GORA DIRA GERRATIK IHESI SIRIATIK ALDE EGIN DUTENAK; ETXEA, BIZIMODUA ETA BIZITZA BERA ATZEAN UTZITA. AZKEN 25 URTEOTAKO MARKA TRISTE ETA LATZENA. LARRIALDI IKARAGARRIA. > 4

Csaba SEGESVARI | AFP



Lau milioi siriarrak herrialdea utzi dute gerra dela-eta 04

Ikusmira: Jostailuzko armak isilarazi nahian Afganistanen 07

Txondorgintza, iraganaren kea hauspotzen duen lanbidea 10

Sherpa: Bilaketarik egin gabe informatzen duen aplikazioa 13

Elkarrizketa: Ibai Fresnedo eta Nagore Larrazabal, hezkidetzaz 18

Behatxulotik 21



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Iruzurrezko kartak
- 08 **Unai Fernandez de Betoño:** Borroka bakarra
- 09 **Mikel Zubimendi:** «Bilduta Euskal Herria Irabazi Ahal Dugu»
- 15 **Xabier Mikel Errekondo:** Uda giro gorria naziogintzan
- 16 **Gorka Zozia:** Lau problema eta soluzio bat
- 17 **Laura Mintegi:** Pertsonak helburu ala itu?
- 20 **Maidier Iantzi:** Kexak kutsakorak dira
- 22 **Iratxe Esnaola:** Enpresa teknologikoen «lobby»-ak
- 23 **Amaia Ballesteros**



{ datorrena } Iratxe Urizar

Iruzurrezko kartak

Hogei urte oraindik bete gabe dituzunean zaila da etorkizunean zer egingo duzun zehaztea, hurrengo urteetako ahaleginak eta dirua zertan erabiliko dituzun erabakitzea. Karrera bat aukeratzeko orduan zuzenbidea hautatu genuen askok eta askok (gazte eta iraultzaile izanik horrelako erabaki bat “etsaiaren” mandatuei men egitea bezala ulertzen zen ia), jokoaren arauak ondo ezagutzea genuen buruan. Gauzak pixka bat edo asko aldatzen ez diren bitartean, gainera, guk aukeratu ez ditugun joko eta jokalekuan aritu behar badugu, eta, beraz, bertako arauen menpe egotera behartuta bagaude, jarraibide eta erregela horiek ondo ikasi behar ditugu, horiek nola erabili eta horiei zukua nola atera jakin behar dugu, eskaini ahal dizkiguten aukera guztiak hausnartu.

Egia da ez dela asko ikasi behar konturatzeko joko hone-tako kartak iruzurrezko kartak direla. Aldeetako batek ederki asko daki joko-arauetatik salbuetsita dagoela, eta joko-arauak bere neurrira moldatu, okertu, bihurritu edo, bere hitzetan esanda, “lege-ingeniaritza” egiteko ahalmena duela, arauak bere nahi edo beharretara egokitzeke. Interes horiek, gainera, aldatuz joan daitezke, baina berdin-berdin dio: arazo barik joango dira beraiek ere joko-arauak aldi berean aldatzen.

Horregatik guztiagatik izango da akaso, baina, halako batean, jokalariai beste batzuk direnean, karta-sorta bestelakoa denean, konfiantza apur bat eskaini, besterik ezin dugu egin. Ez konfiantza gehiegi, baina, hurbilean duguna ezagutu eta gero, ia beste edozer iruditzen zaigu hobe. Nazioarteko legedi eta auzitegiei buruz ari naiz, beste herrialdeetako ezkerreko jendeen harriturarako, euskal herritarrok begi onez ikusten ditugun horiei buruz, hain zuzen ere. Hemen kontua ez da Estrasburgoko Auzitegia aurrerakoia dela baieztatzea, ezta gutxiago ere. Nazio Batuek eta antzeko instituzioak ezker erradikalekoak izatetik urruti daude. Ez da kanpotik benetako soluziobide mirakuluzko batekin etxean ematen diren neurrigabekeria eta errepresio-politika itogarriaren judizializazioari erantzuteko modurik. Aintzat hartu behar da botere faktikoak eta horien interes ekonomiko eta politikoak direla benetan agintzen dutenak, eta, elkarren lagunak izanik, estatuek ez dutela beste estatuen ahuldade eta miseriak kaleratzea gustuko. Hori horrela izanda ere, tamalez esan behar da etxekoa bezain txarrik apenas dagoela.

Ematen du, gainera, zinismoaren puntu gorenera helduta, borrarroek onartu egiten dutela nazioarteko komunitateak betetzen duen arbitro funtzioa. Sinestezina badirudi ere, biktimak animatzen dituzte «Estrasburgora joan daitezten», beraien eskubideak bortxatuak izan direla ulertzen dutenean; edota salaketak aurkezten badituzte, horien kontra argumentatzeko, «Giza Eskubideen Europako Auzitegira jo ez izana» erabiltzen dute argudio gisa. Finean, estrategia horrekin aditzera ematen dute etxeko epaitegietan ez dutela konponbide edo aitortzarik topatuko. Kasu honetan kartak banatzen dituenak finkatzen ditu arauak, baina amarrutan dabil, alde zurretik iruzurrezko kartak banatu ditu-eta.

Inork baino hobeto dakigu jauntxo ahaldun sentitzen direnei kanpotik epelekoak esaten dizkietenean gure salaketek ahotso ematen dietela, ondo ezagutzen dugun errealitate gordin baina isildua ezagutzera ematen dute Madrilko Gobernuaren gehiegikeriak azaleratuz. Aurreko ostegunean horrelako beste bozgorailu bat izan genuen. Uztailaren hasieran Estatu espainiarrari egindako eskubideen inguruko azterketaren ondorioz, Nazio Batuen Era-

Zinismoaren puntu gorenera helduta, badirudi borrarroek onartu egiten dutela nazioarteko komunitateak betetzen duen arbitro funtzioa

kundeko Giza Eskubideen Batzordeak bere gomendioak kaleratu zituen. Ez dira kritika anbiguo edo zehaztugabeak, kritika zorrotz eta zehatzak baizik, Maria Atxabalek pairatutako torturengatik Espainia kondenatu eta ezer egin ez zuela salatu du, esaterako. Gure arrakero hurbilekoak lotsagorritu gabe adierazi zieten batzordekideei, egindako galdera jario etengabeari erantzunez, gomendioek ez zutela inolako efektu lotzailerik beraian, han zeuden denak zur eta lur utziz. Logikoa den bezala, espainiar delegatuei han zer egiten zuten orduan azal zezaten eskatu zieten. Esan bezala, ez gara kanpotik etorriko diren konponbideen zain egongo, ondo dakigu hori gure esku dagoela. Baina txosten batek, orokortasunetatik urruti adibide zehatzekin gogoratzen duenean Espainia azpijokoen erregea dela, egoerok behin betiko alda daitezzen beste pausu txiki bat eman dela baino ezin dugu sentitu. •

LAU MILIOI IHESLARI SIRIAN

Gerraren eraginez 4.013.000 siriarrak ihes egin dute herrialdetik 2011. urtetik hona

 **IHESLARIAK** / Ainara Lertxundi

Jada lau milioitik gora lagunek ihes egin behar izan dute Siriatik gerra dela-eta. Azken 25 urteotako marka guztiak hautsi ditu zifra horrek. Hala ohartarazi du UNHCR Iheslarienezako Nazio Batuen Goi Mandatariak. Krisialdi humanitarioaren larritasuna nabarmendu eta berehalako diru laguntza eskatu du, 5.000 milioi dolar, hain zuzen.

Iavrak 13 urte ditu. Gerra hasi aurretik Kobanen bizi zen. Ikasle ona zen. Kirola eta literatura, batez ere ingelesez idatziriko liburuak, atsegin zituen. Baina egun batetik bestera bere bizimodua errotik aldatu zen. Duela bost urte hasi zen gerraren ondorioz eskola eta etxea

utzi behar izan zituen. Familia-ekin batera, Turkiara ihes egin zuen. Egun, Turkian zabaldua-ko iheslarienezako esparru handi-enean bizi da. «Etxean geunden. Leherketa ugari entzuten genituen. Hurrengo egunean, goizero egiten nuen bezala, eskolara joan nintzen. Lehergailu batek eraikina

Herritarrak gerratik ihes egin nahian, Kobane hiri kurdutik gertu.
I. PRICKET / UNHCR

jo zuen gu sartzean. Izututa geunden. Eskolatik atera ginen guztiak eta egun horretan inor ere ez zen eskolara itzuli. Alde batetik, pozik nago orain jada beste herrialde batean bizi naitzelako, baina, bestetik, triste nire etxea eta logela utzi behar izanagatik. Nire logela nire inspirazio txokoa zen. Orrazia hartu eta abestu egin ohi nuen. Gogorra izan da etxea uztea».

Ivra gaztearen hitzak dira. Iheslarienezako Nazio Batuen Goi Mandatariak jaso ditu Suruk- iheslarienezako zabaldua-ko esparruan. Minutu bat pasa irauten duen bideo laburrean, zibilen eta, batez ere, adin txiki-koen drama laburbiltzen da, bai Ivrraren hitzetan bai bere gura-soen begiradan. Turkian, egun, 1.805.255 iheslari siriarr daude. Hori dela eta, kanpaleku berri bat eraikitzen ari dira Kilis he-rrian, mugatik gertu. “Hurriyet” egunkariak iragarri duenez,



55.000 pertsona hartzeko gaitasuna izango du. Kilisen, dagoeneko, 123.000 siriar bizi dira, bertakoak baino 108.000 pertsona gehiago. Datozen egun eta asteetan, ordea, gehiago iritsiko diren beldur dira agintari turkiarrak Estatu Islamikoaren kontrako borrokengatik. Egun, Siriaren eta Turkiaren arteko mugan 25 kanpaleku daude.

TURKIA, GAINEZKA

Munduan, iheslari gehien hartzen dituen herrialdea da Turkia. Ekainean, soilik, 24.000 lagunetik gora iritsi ziren bertara Siriako gerratik ihesean. Volkan Bozkir Europar Batasuneko Gaietarako ministroak hurrengo iheslari uholdeak zuzenean Europako herrialdeetara joko duela aurreikusi du "Hurriyet" egunkarian eginiko elkarrizketan. «Gure harrera gaitasuna azkenera iritsi da. 6.000 milioi dolar gastatu ditugu jada eta aurrerantzean ezingo ditugu iheslari gehiago hartu. Europar Batasunak 70 milioi euroko diru laguntza eskaini zigun, baina, oraindik ez dugu sosik jaso», salatu du.

Datuen azken eguneraketaren arabera –uztailaren 9koak–, 4.013.000 lagunek alde egin dute Siriatic. Beste 7,6 milioi lagunek beraien bizilekuak utzi behar izan dituzte, Sirian bertan iheslari bihurtuz. «Duela hamar hilabete eskas, iheslariak hiru milioi ziren. Orain, lau milioitik gora. Egoerak horrela jarraitzen badu, urte bukaerarako, herrialdetik ihes egindakoen kopurua 4,27 milioikoa izango da», ohartarazi du Antonio Guterres Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariak. «Belaunaldi bakar batean errefuxiatu gehien eragin dituen gatazka dugu Siria-koa. Aipaturiko zifra horiek, dena den, gora egin dezakete gerrak aurrera egiten duen heinean. Pertsona horiek guztiek nazioartearen laguntza behar dute orain, ezin dute gehiago itxaron. Baldintza lazarrietan bizi dira», gaineratu du. «Jordania, kanpalekuetatik at bizi direnen %82 pobrezia-aren atalasetik behera bizi dira, eguneko 3,2 dolar baino gutxiagorekin. Liba-

non errefuxiatuen %55 etxebizitza kaskarretan bizi dira», zehaztu du Guterresek.

ITZULTZEKO ITXAROPENIK GABE

Sorterrira itzuli ahal izateko itxaropena gero eta murriztagoa da egunetik egunera. «Amorrua eta etsipena areagotzen ari dira iheslarien artean. Ezin dugu halakorik baimendu. 5.500 milioi dolarreko laguntza behar dugu. Tamalez, kopuru horren %24 besterik ez dugu lortu. Murrizketa gogorak egin beharko ditugu, laguntza humanitarioa nabarmen murriztuz. Ondorioz, iheslariak ezin izango dituzte beraien seme-alabak ikastetxeetan matrikulatu eta osasun zerbitzuetara jotzeko zailtasun gehiago izango dituzte», aurreratu du Guterresek.

«Ez dugu Siriara itzultzeko asmorik. Eguneroko bizitzak kezkatzen gaitu, nola bermatu gure seme-alaben biziraupena», dio Yassin Alik AFP berri-agentziari eginiko adierazpenetan. Gatazka hasi zenetik, duela bost urte, Libanoko iparraldean bizi da, Minie izeneko herrian. Emaztearekin eta hiru semeekin bizi da nekazaritza landa batzuetan eraikitako kanpaleku ez ofizial batean, elektrizitaterik eta edateko urik gabe.

Kanpalekua kartzela batekin parekatzen du Khaled Cheikh iheslariak. «Poliziak nire lau semeak eta beste zazpi pertsona atxilotu ditu paperik ez izateagatik. Ez dugu lanik, ezta kanpalekutik ateratzeko baimenik», dio 53 urteko gizonak. «Inork ez du deus egiten gerrarekin amaitzeko eta gure itzulera ahalbidetzeko», dio etsituta. Bere sorterrira, Homs, gogor kolpatu dute batzuek zein bestiek gerra hasi zenetik, eta, garai batean ederra izan zen hirian, egun hondakinak besterik ez daude.

«Urteen joan-etorriarekin ohartu gara Ameriketako Estatu Batuen eta gainontzeko herrien hitz potolo eta ederrak ezerezean gelditu direla. Ez dute emandako hitza bete. Europara joan nahiko nuke. Hori da nire ametsa. Europarrek beraien etxeetan jan eta lo egiten dute. Guk, aldiz, ez dugu etxerik eta mun-



Goian, Mujahid Libanon. Behean, Muhaned eta Sultan Mafragen, Jordania, bizi diren etxeko komunean.

UNHCR



du guztiak zama handi bat bezala ikusten gaitu», nabarmendu du Usama al Raqak. 22 urte ditu. Gerra dela-eta, ezin izan ditu unibertsitateko ikasketak egin.

GERO ETA TXIROAGOAK

«Iheslariak gero eta pobreagoak dira eta, ondorioz, adin txikikoek ikasketak utzi behar dituzte eta lanean hasi behar dute etxean laguntzeko. Eskaletasuna ohiko bihurtu da familietan eta adin txikikoen artean», ohartarazi du Guterresek. Unicef eta Save the Children erakundeek egin duten txostenaren arabera, Jordanian errefuxiatuta dauden umeen %50ek lan egiten dute familiari laguntzeko.

2,7 milioi haur siriar eskolatik kanpo daude. «Galdutako belaunaldiaren» parte dira. «Umeek bizirauteko lan egiten dute baldintza ankerretan eta inolako eskubiderik gabe. Lehen mailako aktore ekonomikoak bihurtu dira, bai Sirian bai zonaldeko herrialdeetan ere», adierazi dute Unicefek eta Save the Childrenek. «Ordu asko lan egiten dute soldata txiki baten truke. Hori gutxi balitz, maiz, leku arrisku-

tsuetan eta osasunerako kaltegarriak diren guneeetan ari dira lanean», helarazi du Peter Salamak, Unicefen zuzendaria Afrikako iparraldean eta Ekialde Hurbilean. Bere hitzetan, «lanak haurren garapena oztopatu eta osasuna kaltetzen du; pisu handiko zamak garraiatu behar dituzte eta pestizida nahiz kimiko toxikoekin ere jarduten dute».

Jordaniako Za'atari iheslarien esparruan elkarrizketatu zituzten umeen artean, lautik hiruk lanaren ondorioz osasun arazok dituela esan du. Eta %22k Mafraqeko eta Jordan ibaiaren ibarreko nekazaritza guneeetan lanean zeudela istripuren bat izan izana onartu zuen.

Gerra hasi aurretik, alfabetatze indizea %90etik gorakoa zen Sirian eta haur gehienak eskolara joaten ziren. Bost urteren bueltan, errealitatea bestelakoa da. Datuak gordinak dira. Londresen egoitza duen Giza Eskubideen Behatoki Siriarraren arabera, 230.000 pertsonatik gora hil eta bi milioi haur Siriatik kanpo bizi dira iheslari gisa. Bost pertsonatik lauk baliabide urriak dituzte. 2011n langabezia

%14,9koa zen; 2014 amaieran, berriz, %57,7koa. Biztanleriaren %66,7 muturreko pobrezian bizi da. «Ez badugu nahi belaunaldi oso batek gizateriarenganako fedea betiko galtzea, lehenbailehen zerbait egin behar dugu egungo egoera errotik aldatzeko», ohartarazi du gobernu kanpoko Oxfam erakundeak.

GAIXOTASUNAK HEDATZEKO ARRISKUA

Edateko uraren gabezia siriarren osasuna kaltetzen ari da, batez ere, umeena. Urte hasieratik, 105.886 beherako kasu larri antzeman dira. Hepatitis A gaitzak ere gora egin du nabarmen.

Sukarrak jotako Nazal 14 urteko gaztea amarekin, ezkerrean, eta beste senide batzuekin Adanan, Turkiako hegoaldean, zabaldutako kanpaleku batean. I. PRICKET / UNHCR

«Europara joan nahiko nuke. Hori da nire ametsa. Europarrek beraien etxeetan jan eta lo egiten dute. Guk, aldiz, ez dugu etxerik eta mundu guztiak zama bat bezala ikusten gaitu»

«Iheslariak gero eta pobreagoak dira eta, horren ondorioz, adin txikikoek ikasketak utzi behar dituzte eta lanean hasi behar dute etxean laguntzeko. Eskaletasuna ohiko bihurtu da»

Otsailean, aste batean soilik, 1.700 hepatitis diagnostikatu ziren. «Egoera benetan larria da. Umeak dira kaltetuenak. Ura gero eta eskasagoa da, eta, kalitatea, txarragoa. Umeen osasuna arriskuan dago higiene arazoak direla eta», azaldu du Hanaa Singer Unicefek Sirian duen ordezkariak. Deir-Ez-Zour du unetotan kezka iturri nagusi: hondakin urak Eufrates ibairaino iritsi dira, kutsadura maila larria da eta 1.144 pertsona gaixotu dira jada tifusak jota.

Jordania eta Siriaren arteko muga pasa den apirilean itxi izanak uraren eta premia-premiazko beste produktu batzuen horniketa zaildu du herrialdean. Ordura arte, Unicefek muga hori erabiltzen zuen ura edangarri bihurtzeko materiala Siriaino garraiatzeko. Hilero-hilero milioi erdi litro ur edangarri bihurtzen zituzten horrela.

UNICEF DIRU BILA

Egoeraren larritasuna ikusita, abuztu bukaera bitarte 5 milioi dolar jasotzeko deialdia egin du Unicefek. Ur horniketa, saneamendu-sarea eta gutxieneko garbitasun baldintzak bermatzeko behar du diru hori. Diru bilketa mezu honekin jarri du abian: «Begira itzazu inguruan dituzun umeak. Zure seme-alabak, ilobak, lagunen semeak, bilobak... Orain, irudikatu bi, hiru, lau... urtez eskolara joaterik izan ez duten Siriako umeak. Pentsa ezazu denbora horretan ezin izan dituztela beraien lagun minak ikusi, ez dutela jostailu berriarik izan opari gisa, ezin izan dutela beraien ohean goxo-goxo lo egin. Ahmadi medikuntza ikastea gustatuko litzaioke, Dalak irakasle izan nahi du, baina denbora luzea daramate biek eskolara joan gabe. Zure laguntza behar dute».

7,6 milioi desplazatu Sirian eta lau milioi iheslari atzerrian. Azken bost urteotan 114.000 ume jaio dira iheslariantzako eremuetan. Nazioarteko komunitatearen laguntza ezinbesteko dute siriarrak. Guterresek 5.500 milioi dolar eskatu ditu, baina belaunaldi oso bati egindako kaltea askoz sakonagoa da.



Noorullah SHIRZADA | AFP




IKUSMIRA

JOSTAILUZKO ARMAK ISILARAZI NAHI, NON ETA AFGANISTANEN

Afganistango Gobernu titereak umek jolasteko erabiltzen dituzten armen plastikozko erreplikak saltzea debekatu du. An-tza, ehundik gora gazte zauritu dira jada, gehienak begietan, "arma" hauek jaurtitzen dituzten kautxuzko balekin. Aïd el-Fitr edo Ramadanaren amaiera ospatzeko aspaldiko ohitura da Af-ganistanen umeei txanpon batzuk oparitzea; bada, gehienek, plastikozko kalaxnikov eta pistolak erosten dituzte. Txikienen segurtasuna bermatzen saiatzea beti dago ondo, baino nago ni

neurriak ez ote duen kutsu hipokrita nabaria. Bada erabakia txalotu duenik, «txikitan plastikozko armekin jolasten badira nagusitzean afganiarrek benetako armak» erabiliko dituztela argudiatuta. Hor dago tranpa. Umeek arma kontutan irakasle trebeak izan dituzte aspalditik Afganistanen. Sobietar Batasu-neko Armada Gorria lehenik, gerra jauntxoak gero eta AEBeta-ko Armada azkenik. Zertan izango da trebea bere gurasoak hil-tzen ikusi duen afganiar gazteria? Dabid LAZKANOITURBURU



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Borroka bakarra

Subilla Gasteizen egindako Frackanpada interesgarriari esker birgogoratu ahal izan genituen lurraren aldeko hainbat borroka esperientzia, pasa den uztailaren 13an. Denak batera, elkarren segidan: Lemoizko zentral nuklearraren aurkako borroka, Leitzarango autobidearena, Itoizko urtegiarena, Pirinioak Nafarroatik zeharkatzeko autobidearena, abiadura handiko trenarena eta, modu inplizitu zeharkakoan, haustura hidraulikoarena. Sei borroka ezberdin, kapitalismoak bere azpiegitura erraldoiak hantzen gaizatzeko estrategia gupidagabeen berri eman zigutenak. Baita Euskal Herriko azken hamarkadotako herri mugimendu ekologisten bilakaeraren erradiografia panoramiko zabala ere. Etorkizun gerturako zer pentsa ematen duena.

Errepresio bortitza; isunez itotzea; kriminalizazioa; herri mugimenduetan motibazioa galarazteko eta zatiketak eragiteko posibilismo itxurakoa (diseinuen alternatiba ezberdinak proposatuz); errentagarritasun ekonomikoaren nagusitasunaren argudio eztaba daezina; aurrerapenaren eta demokraziaren eskusibotasunaren aldarrikapena; gauez eta azpikeriaz argitaratzea proiektuei alegazioak jartzeko epeak... Antzerako erantzunak eman dituzte legezko bortxaren monopolioa eta hedabide nagusien kontrola duten erakunde ofizialek. Hala ere, estrategia nagusi bat eduki dute kasu guztietan: atzerakorik gabeko ekintza burutuen politika irmo eta aldrebea. Lehenik, badaezpada, eraiki; ondoren, justifikazioa bilatu.

Frackanpandan autokritika zintzoa ere egin zen, ordea. Bartzuetan, baldintza politiko berrietarako egokitzapen falta jazo omen da (borroka armatuaren zilegitasunaren bilakaera aipatu zuen Josu Torre Lemoizen aurkako Mungiako plataformako kideak), bestetan tokiko jendea aktibatzeke giharrak ez du behar beste funtzionatu (beharbada, Nafarroa Behereko LEIA mugimendua izan da lekuan sustraituena, Mikel Alvarez AHTren aurkako Donostiako taldeko kidearen iritziz), eta, azken hamarkadan, bereziki, epaitegien eta instituzioen bide arautuekiko fede handiegia eduki ei da, Julio Villanueva Itoitzekin Elkartasuna taldeko kideak ohartarazi bezala.

Zentzu horretan, *fracking* edo haustura hidraulikoaren aurkako mugimendua eredu zko izaten ari dela komentatu zen, gizarte zabalarekin konektatzea lortu delako. Kaleko aktibazioa ahaztu gabe (2012ko Gasteizko manifestazio jendetsu eta anitzak mugarri bat ezarri zuen), EAEko Legebiltzarren babes legala ere arrakastaz eskuratu berri du, 103.000 sinadura baino gehiago lortu ondoren. Lorpen horrek, baina, jendearen baretze arriskutsua ekar dezake, Mikel Otero Fracking Ez Arabako kidearen ustez. Eta, haustura hidraulikoarena bizitzaren aurkako eraso erabatekoa izanda (lotura gehiago du, hortaz, Lemoizko edo Garoñako kasuekin, besteekin baino), ez da komeni gehiegi lasaitzea.

Kalearen mailako herri kontzientzia eta instituzioen mailako bide ofiziala irmoki uztartuko dituen mugimendu bateratua osatzeko deia entzun zen Frackanpandan. Bakarra baita Lurra defendatzeko borroka. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

«Bilduta Euskal Herria Irabazi Ahal Dugu»

Horrela formulatuta, izenburu hori irakurrita, printzipioz, eta baita funtsezko funtsean ere, ados, alde. Lagunartean bolo-bolo dabil herri-
tar batasuneko hautagaitza baten proposa-
mena. Astindu ditu bazterrak, uxatu ditu na-
gi intelektualak, inarrosi norbere
“txikimunduko” konfort eta lubaki mentalak... Ez da gutxi. Ideia botopaper batean gauzatuko ote den ez dago aurrera-
tzerik. Gaur-gaurkoz ezetz esango nuke. Ikuskizun dago or-
dea. Agian bai... agian. Zoritxarrez, baina, eskakeria ez da
falta kultura politikoa, irabazteko galtzen jakin behar dela
kosta egiten da barneratzen eta arriskuak hartu behar dire-
la errazagoa da esaten, arriskuan bizitzea baino. Errazagoa
aldaketaren alde gaudela aldarrikatzea benetan aldatu
nahi dugula demostratzea baino.

Astea politikoki baldintzatu duen proposamenak bide
oparoa du aurretik. Espainiako hauteskundeetarako eta
askoz urrutirago, irismen lu-
zea izan lezakeelako. Alderdi
politikoen adostasuna behar-
ko da, baina herritarren prota-
gonismoa eta bultzada ditu
ezinbesteko. Ilusioa piztea,
jendearen berotasuna eta az-
kertasun taktiko handia. Be-
harko ditu oso sinpleak eta
garapenerako aukeraz beteri-
koak diren puntu programati-
koak, izen eta erabaki zehatze-
tan asmatzea, oraingoz,
inoren, inongo alderdien esku
ez diren soluzioetan asma-
tzea.

Herritar batasuneko hautagaitzaren ideia euskal politi-
karen plazara jalgi den unea ohiz kanpoko da, larritasuna
aitortzea merezi duen testuinguruan dator. Katalunian ha-
mar aste bakarrik falta dira independentziaren gaineko
hauteskunde plebiszitarioetarako, eta, gurean, gure bi le-
hendakarietako bat, Felipe erregearekin edo Pedro Sanchez
PSOEk buruarekin, unionismoa goratzen den ekitaldie-
tan. Oso irudi lotsagarria, Euskal Herri-
tik Kataluniara igor-
tzen den seinale tristea. Baina hori da dagoena. Bankuekin
egin bezala, EAJk PSE erreskatatzea erabaki du, Euskal He-
rria kabitzen ez den normaltasun zahar-berri bat betikotu
nahian. Marka da gero une zehatz honetan eta etorkizune-
rako iragan mendeko «Ardanza eredu» lehenestea!

Gure esku dago Euskal Herriko politikaren ibilbide zen-
trala EAJ-PSOE arrastotik ateratzea. Herritar batasun kandi-
datura batek bakarrik ez du hori lortuko baina bultzada

emango lioke ahalegin horri. Jendearen umore politikoa
piztuko luke, jendea ahaldundu eta konfiantza propioak
indartuko lituzke. Independentista garenontzat, gainera,
lur oparo bat ongarrituko luke, gure mapari erliebea eman-
go lioke, goldaketa aro berri bati indarra. Eta hori guztia
kalkulagailua hartzeko tentaziori eusteke: hamabi diputa-
tu eta hamar senatariekin, lehen indarra.

Jokoa zabalduko luke, presoak askatzeko aukera berriak
leudeke, independentismo serio bati begirako eztabaida
erradikalari patxada eta horizonte sakonagoa erraztuko
lioke. Hori guzti hori positibo pentsatzen jarrita, orotan pa-
norama okerreanean jarrita eskuak burura eramateko arra-
zoiak faltan ez ditugula aitortuta. Baina bai, posible balitz,
lagun asko bezala, ni ere, pozez txoratzen! Ametsaren ildo-
an, bete eta beteki. Begiak itxi eta Bizkaiko zerrendako az-
ken postuan Gaizka Garitano imajinatzen dut, edo Gure Es-
ku Dagoko Anjel Oiarbide edo Nafarroako Ahal Duguko

Ezinezkoa dela? Saiatu beharrekoa baina
ilusio handiegirik egiteke? Hor datza,
baina, politikaren artea: gaur ezinezkoa
dirudiena bihar saihestezin egitean. Eutsi
horri bada, animo eta kurai on!

Laura Perez bezalakoak. Julen Mendoza eta Ion Collarrek
Errenterian eskaini ziguten besarkada eder hari berriak
gehituz, Gasteizen sumatzen den elkarkidetzaren oparo horri
segida emanez... Taktikoki azkarra eta estrategikoki palan-
ka indartsua da.

Badakit ez dela erraza izango, horrek bakarrik ez dituela
ezkerreko independentismoak dituen demontreak zuzen-
duko, ez dela bere baitan behar eta merezi dugun estrate-
gia sendo eta serio bat eutsiko duen harri filosofala. Ha-
markadetako borrokaren amortizazioa ez dut inondik
ikusten, aitzitik, independentziaren bidea asko zabalduko
duen errentabilizazioaren lagungarria dakusat oso.

Ezinezkoa dela? Saiatu beharrekoa baina ilusio handiegi-
rik egiteke? Hor datza, baina, politikaren artea: gaur ezine-
zko dirudiena bihar saihestezin egitean. Eutsi horri bada,
animo eta kurai on! •

TXONDORGINTZA, IRAGANAREN KEA HAUSPOTZEN DUEN LANBIDEA

Maidar EIZMENDI

Garai batean Lana ibarreko herritarrek bizirauteko zuten modu bakarra zen ia txondorgintza. Gaur egun Bilorian baino ez da mantentzen txondorrak egiteko ohitura. Uda iristean hainbat biztanlek jartzen dituzten ketan txondorrak eta herritarren oroimenak.

Egun eguzkitsu eta beroa dugu Bilorian. Herriko sarrera iragartzen duen karteltxoa gurutzatu baino lehen sumatzen da ia txokoak gordetzen duen sekretuaren usaina. Etxe artean gordeta dagoen plazatik bertatik ikusten da ehun metro eskasera eraikitak dauden txondorretako kea eta giroan arnasten da haien arrastoa. Sarkorra izanagatik, soilik kanpotik bertaratutakoek sumatzen dute ia kedar usain hori, «herrian ohituta» daude-eta jada. Lana ibarrean mendeak daramatzate txondorrak egiteko usadioari lotuta. Garai batean, bertako herri guztietan zeuden ikazkinak; egun Bilorian baino ez dira mantentzen ofizio honen arrastoak.

Aurten lauzpabost herritarrek heldu diote eskarmentua eta, batez ere, pazientzia handia eskatzen duen beharrari. Horietako bat da Salba Remiro biloriarra. Las Eras izenez ezaguna den eremuan makina bat ordu eman ditu azken denboran. «Goizean goiz etorri izan bazineten, txondorretatik ke mordoa irteten ikusiko zenuten; eguna berotzen hasten denean ez dute apenas kerik botatzen», azaldu du, bere gisa txondorra zaintzen ari den bizilagun bat agurtzen duen bitartean. Itzaletan eserita dago hura, lo zorroan ia, baina zaintzen hala ere.

Bere txokora iritsita, Remirok azken orduetan egin duen lana erakusten du. Bezperan hustu du txondorra eta eguerdi parterako ia amaitu du bi egun barru pizteko asmoa duen egitura. «Su emateko prest dago jada», dio, txondorraren tximinia ikusteko gonbita egiten duen bitartean. Airoso igo da bera, gainerakoei gehiago kostatu zaigu. «Ohitura kontua da», saiatu da lasaitzen. Haurra zela ikasi zituen txondorgintzaren sekretuak: «Nire aita ez zen txondorgintzan aritu, lurra zuen eta nekazaritzan aritzen zen, baina nire osabak bai eta txikitatik ikasi genuen ia txondorrak egiten», aipatu du.

Herrian ia familia guztien bizibidea zen ikazkintza, izan ere, ereiteko lur gutxi zegoen, eta, aldean, berriz, artadi handiak. Remiro bera 14-15 urterekin hasi zen

Txondorra osatzeko tamaina desberdinetako egur zatiak erabiltzen dituzte. Zatiok ondo antolatzen dituzte hasi aurretik. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



langintza horretan. «Hori izan zen ikasi genuen gauza bakarrenetarikoa», kontatu du. Orduan ez ziren egun dauden garraiorako tresnak eta egurra zegoen tokira joaten ziren, mendira beraz. «Sasoi hartan oso gogorra zen jarduna; mendian eman behar izaten genituen denboraldi luzeak, etxera inguratu ere egin gabe. Astean behin taldeko norbait baino ez zen jaisten asterako ogia erosteko», gogorra ekarri du. Orduko kalamitateek egungo lan eskerga arintzen dute: «Orain egurra herrira jaisten dugu eta txondorra gertu izanda etxean egin dezakegu lo. Txondorrak daraman erritmoaren arabera, gauean behin edo bitan jaikita nahikoa da».

Ez dio txondorrak egiteri inoiz utzi, baina urteak eman ditu herritik kanpo: «Anaiek egiten zuten lehen eta udan etorritakoan haiei laguntzen aritzen nintzen». Erretiroa hartu eta denbora libre gehiago izatean erabaki zuen txondorgintzari gogorrago eustea, orain zortzi urte, udan beti: «Euriak ez digu mesede egiten, egur gehiago kontsumitzen delako; horregatik saiatzen gara udan egiten». Udaberri sasoi, lehengaia biltzeko sasoi da eurentzat.

EGUR LOTEAK

Herriko mendietatik ekartzen dute egurra. Baso handiak ditu Biloriak eta herritar bakoitzari egur sorta bat eskaintzen zaio, bai etxean sua pizteko bai txondo-

rrak egiteko. «Ikatz egin nahi duenak egur hori erabiltzen du», aipatu du. Artea erabiltzen dute eurek, «ikatz egiteko hobereena» delako. «Gutxi pisatzen du eta zailtasun handirik gabe erretzen da; haritzak txispa handiak eragiten ditu, aldiz. Hemen jendeak artearen ikatza nahi izaten du».

Egurra tamaina desberdinetako zatietan ebakitzen dute. Zatirik handienak txondorraren barneko aldean kokatzen dituzte –erdian tximinia moduko zulo bat utzita–, eta, behin haiekin egitura sendoa osatuta, tamaina txikiagoko egur zatiekin inguratzen dute kono itxura emanez. «Ondoren egituraren inguruan harriak jartzen ditugu ikatza egosten ari den bitartean txondorra ez erortzeko; harrien gainean adartxoak jartzen ditugu, eta, azkenik, egitura guztia lastoz estaltzen da lurra zuloetatik barrena sar ez dadin», azaldu du pausoz pauso txondorraren barneko egitura deskribatuz. Kanpoko aldea begi bistan geratzen da, eta txondor guztia lurrez estaltzen da. «Lurrez ondo estaltzea guztiz beharrezkoa da, gainerakoan egurra erre egiten da egosi beharrean».

Tirriki-tarraka etengabe aritzen da lanean: «Honetan ere beste gauzetan gertatzen dena pasatzen da; beti dago egiteko zerbait».

Su eman ostean, egurra ikatz bilakatzeko prozesuak, oro har, hamar-hamabi bat egun irauten ditu: «Zulo asko egiten ba-



diozu azkarrago erretzen da, baina neurria hartu behar zaio guztiz erre ez dadin». Behin txondorra piztuta, zaintza lana da ikazkinak egin behar duena, begiratu eta jaten eman: «Iluntzean egurra bota behar izaten diogu, gu bezala 'gose' egiten da-eta», dio barrez. Horretarako goiko txapela kendu, tximinian "betagarria" bota eta berriz ere estaltzen du. Txondorraren gainean jarritako eskailera gora eta behera ematen du eguna, beraz, Remirok, erreparo handirik erakutsi gabe. «Hanka sartzen baduzu, gehienera ere galdarraztatu egiten zaitu», kontatu du, barrez, egituraren gora egiten duen bitartean.

LURRARI ETA KEARI TAMAINA HARTU

Segituan atzematen da, Remioren esanetan, noiz dagoen egur-ikatzaren guztiz egosita. «Lurrari eta keari atzematen zaio noiz dagoen prest». Eskarmentu kontua ere izango da.

Lanaren fruitua jasotzearen gozoa garratz xamarra da, Remioren ustez. «Inolako zalantzarik gabe, txondorra hustu eta ikatza zakuetan sartzea da gogorrena. Azkar atera behar izaten da, baina erre ez dadin kontu handia izanda», azaldu du. «Normalean ez da halakorik gertatzen», zehaztu du, «baina ikatzak su hartzen badu ura bota behar zaio». Hori da, Remioren ustez, herrigunean aritzearen beste abantaila bat. «Lehen mendian ez genuen urik izaten eta asteetan egindako

Goian, txondorra tamaina txikiagoko makilekin osatuta agertzen da. Ondoren lastoz eta lurrez estaltzen dute, beheko irudian ikusten den moduan erretzen hasi aurretik.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Lana ibarrean mendeak daramatzate txondorrek egiteko usadioari lotuta. Lehen, bertako herri guztietan zeuden ikazkinak; gaur egun, aldiz, Bilorian baino ez dira mantentzen ofizio honen arrastoak

Garai batean, mendian egiten zuten egur-ikatzak industria erabilpena zuen; «fundizioetan baliatzen zuten». Gaur egun, baina, jana egiteko erabiltzen da batez ere: kanpinetan, erretegiak eta sagardotegietan



lana guztiz zapuztu ez zedin, sugarrak sortzean lurra bota eta bota aritu behar izaten genuen».


Osatu berri duen txondorraren bueltan kokatuta daude bezperan ateratako ikatz zakuak. Ez da arau matematikoa, baina biloriarraren esanetan, txondorrean jartzen den lau kilo egurreko kilo bat ikatz lortzen da gutxi gorabehera, kasu honetan, 1.500 kilo inguru.

Garai batean, mendian egiten zuten egur-ikatzak industria erabilpena zuen; «fundizioetan baliatzen zuten». Gaur egun, baina, jana egiteko erabiltzen da batez ere: kanpinetan, erretegiak eta sagardotegiak. «Kontua da ikatz gutxi egiten dela egun eta kanpotik ekarri behar izaten dela, Argentinatik, ekialdeko herrietatik... Hemengoa nahiago izaten dute baina askok, besteak beste txinparta gutxiago sortzen duela diotelako», dio.

GAZTEAK ETA OHITURA

Batera edo bestera, Bilorian ekoizten duten ikatza saltzeko arazorik ez dute. Ez du noski bizitzeko ematen, «lan handia eta etekin gutxiko zaletasuna» baita. Eskualdeari horren lotua dagoen usadioa mantentzeak ere ilusioa egiten dio Remirori: «Egia esan ez da lan erakargarri edo gomendagarria, baina gazteek testigua hartzen ez badute, ohitura honek ez du jarraituko, ez behintzat ikatza ateratzeko helburuarekin». Gaur egun, izan ere, txondorrak erakustaldi gisa osatzen dira batez ere. Remirok ere parte hartu du behin baino gehiagotan erakustaldietan. «Saran egin genuen bat eta ikastoletako gazteak etorri zitzaizkigun hura ikusi eta gure azalpenak entzuterat», gogoratu du. Ez du baina Remirok irakasle sen handirik eta «egun guztian behin eta berriz azalpen berdinak ematen» aritu beharra ez zitzaiola asko gustatu aipatu du irribarretsu, ez behintzat beste gonbite batzuei heltzeko adina. Bere kasa ibiltzea gustatzen zaio gehiago, baina udan usadio honek tentatuta herrira bertaratzen diren kanpotarrei ere eman behar izan dizkie azalpen eta irakaspenak, baita jardun honen kontakizuna egitera joandako kazetariak ere. Azalpenak amaituta, berriz ere txondorretara bertaratzeke prest agertu da, tirriki-tarraka lanean jarraitzeko.

Remiro eta txondorrak atzen utzi eta herritik ateratzean oharitu gara batez ere usainaren sarkorraz, etxerako buelta guztian sumatu baitugu Biloriako «usain berezi» hori arropan. Remirok ondo abisatua zigun elkartu bezain pronto: «Usaina etxeraino eramango duzue, ikusiko duzue». Usaina eta kontakizuna, biak ekarri ditugu.



Egoste prozesua amaitutakoan, txondorra hustu egin behar da. Ikatza lortzea atsegina da, baina egitura desegitea lan gogorra dela dio Remirok. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



SHERPA

Bilaketarik gabe erabiltzailearen arabeko informazioa ematen duen aplikazioa

TEKNOLOGIA / Aimar Etxeberria Korta

Sherpa izenarekin bataiatu du Xabier Uribe-Etxebarriak telefono mugikorretan informazioa bilatzeko eta jasotzeko moduak hankaz gora jarriko dituen aplikazioa. Bilaketarik egin beharrik gabe erabiltzailearen beharrei egokitutako informazioa ematen du aplikazioak, informatzailerik onena bilaketarik behar ez duena dela uste duelako sortzaileak.

Bere adierarik sinpleenean, telefono mugikor batean erabiltzeko gartua izan den aplikazio bat da Sherpa. Baina ez dugu arrazoi horregatik ekarri aipatu aplikazioa orriotara, sorrerako helburuak betetzeko gaur arte egin den aplikaziorik hoberenetakoa delako baizik.

Sherparen helburu nagusia informazioa ematea da, hau da,

telefono mugikorraren erabiltzailearentzat informazio iturri izan nahi du Sherpak, baina modu ezberdin batean. Horren inguruan hitz egin du Xabier Uribe-Etxebarria Sherpa enpresaren fundatzaile eta zuzendari nagusiak GAUR8rekin. Uribe-Etxebarriaren arabera, hiru atal nagusi ditu erabilera publikora aterata berri den aplikazioak.

Hasieran aipatu bezala, telefono mugikorraren erabiltzailearentzat informazio iturri izan nahi du Sherpak. Herri baten, musika talde baten, eguraldiaren edota beste edozein konturen inguruan galdetu eta erantzun bat ematea da Sherpa aplikazioaren lehen helburua. Baina aplikazioaren sortzaileak dioenez, hori ere ohiko informazio iturriekin alderatuta (sareko bilatzaileekin kasu) «modu ikusgarriago eta erabilgarriagoan» egiten du. Izan ere, bilaketaren arabera egokitzen diren erantzunak ematen ditu Sherpak: herri baten inguruan galdetuz gero herriaren webgune ofiziala, bertako eguraldia edota bertan –edo gertu– dauden ekitaldi eta leku interesgarrien berri ematen du; musika talde baten inguruan galdetuta, berriz, bere webgune ofiziala, taldearen hurrengo kontzertuak edo abesti ezagunen zerrendaren berri ematen du. «Batez ere azpimarratutako esteketatik egin dugu ihes, gailu mugikor batera hobeto egokitutako emaitzak erakutsiz», dio Uribe-Etxebarriak.

Aplikazioaren erabilera horrez gain, laguntzaile pertsonal baten lanak ere egin ditzake Sherpak. Adibidez, mugikorrean alarma jartzeko eskaera egin diezaioke erabiltzaileak. Kasu horretan ez dago inolako informazio bilaketarik, agindu bat ematen zaio eta aplikazioak bete egiten du.

Baina gehien sakondu duten arloa bestelako bat da, aplikazioaren erabiltzailearen beharrei aurre hartzearena, alegia. Sherpara sartu bezain pronto, eta erabiltzailearen gustuen arabera, hainbat konturen berri ematen du: zinemetan dauden filmen berri, erabiltzailearen kokapenaren arabera inguruan di-



Sherpa aplikazioaren garapena azken hiru urteotan eman bada ere, 80ko hamarkadaren amaieran ikusi zuen bideo bat izan du inspirazio iturri aplikazioaren sortzailea den Xabier Uribe-Etxebarriak.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

tuen ekitaldi interesgarrien berri... «Guretzat, informatzailerik hoherena, bilaketarik egin gabe informazioa emango ligukeen hori izango litzateke», adierazi du Sherparen sortzaileak. «Adibidez, goizean esnatu eta egiten duen eguraldiaren arabera zer arropa jantzi gomendatzen dio erabiltzaileari, erabiltzailearen interesen arabera jazo diren albisteen berri ematen du, telebistan emango duten programen zerrenda erakusten du...», azaldu du. Eta guztia gailu mugikorrean edo erabiltzaile berarekin egin diren bilaketen arabera egiten du, landu duten algoritmo bat baliatuz.

Aplikazioa, gehiena bederen –azpikontratatu behar izan dituzten hainbat lan kenduta–, Euskal Herrian garatu dute.

BIDEO BAT, INSPIRAZIO ITURRI

Hiru urteko lan luzea du atzean Sherpak, eta oraindik ez du amaiera ikusi, Uribe-Etxebarria-

Samsung etxearekin lortu duten banaketa akordioari esker Estatu espainolean saltzen diren telefono mugikorren erdietan Sherpa aplikazioa instalatuta egotea lortu dute

Google Now aplikazioarekin lehiatu nahi du Sherpak. «Ez dira gu baino hobeak eta jarrreran ezin gaituzte irabazi», nabarmendu du aplikazioaren sortzailea den Uribe-Etxebarriak

ren arabera beti egongo baita zer hobetua. «Orain arte lortu dugunarekin, ordea, eroso aurkitzen gara aplikazioari hedapena ematen hasteko, hau da, aplikazioa erabilera publikora ateratzeko», dio.

Aplikazioa garatzeko lan erreala azken hiru urteotan garatu badu ere, aspaldidanik zebilkien buruan Uribe-Etxebarriak Sherparen antzeko zerbitzu sortzeko ideia. 80ko hamarkadaren amaiera izango zen John Scally

enpresariak egindako “The Knowledge Navigator” ikusi zuenean. Laguntzaile pertsonal baten inguruko bideoa zen, pertsona bati bere egunerokoan laguntzen ziona, hitz egin zezakeena, hainbat eginkizun egin zitzakeena. Bideo hura izan zuen inspirazio iturri Sherparen sortzaileak.

Beste enpresa batean ziharduen lanean Uribe-Etxebarriak Sherpan aplikazioa garatzeko egitasmoan buru-belarri sartzea

erabaki zuenean, ondorioz, hura utzi beharrean suertatu zen. «Munduan diren enpresa handienekin lehiatzea nuen amets, gauzak beste era batera eginez eta zegoena hobetuz», dio. Zentzu horretan, egitasmo bat abiarazteko behar den elementu garrantzitsuenetakoa lantalde on bat izatea dela dio, «konplikatu den kontua. Inguruan jende ona behar da –jarraitu du–, proiektuarekin konprometitutakoa. Hori bai, batez ere, helburuak ongi zehazteak ekarri gaitu egungo egoerara».

Horregatik, azken hiru urteotan indar guztiak produktuan, hau da, Sherpa aplikazioan, jarri dituztela argitu du Uribe-Etxebarriak. Hamabost lagun inguruko lantaldea –horien artean denetarik, informatikoetatik medikuetara – ibili da jardunean, baina askoz ere pertsona gehiago izan dira aplikazioan euren aletxoa jarri dutenak azpikontratatu behar izan dituz-

ten lanen ondorioz. Orain, produktuak –Sherpak– forma hartu duenean hasi dira banaketarekin pentsatzen, eta horren ondorio da Samsung etxearekin itxi duten banaketa akordioa.

PRODUKTUA ETA SALTZEN JAKITEA

Aipatu bezala, banaketaren inguruko akordioa erdietsi du Sherpak Samsung etxearekin. Horren ondorioz, Samsung markako telefono mugikor guztiek instalatuta izango dute Sherpa aplikazioa. Berrikuntza nabarmena da multinazionalak gaur arte gisa honetako aplikazioekin izan duen jokaera ezagututa, lehenengo aldia izango baita Samsung berak garatu ez duen aplikazio bat masiboki txertatuko duela bere mugikorretan. «Hasteko, Estatu espainiarrean saltzen diren telefono mugikorreren erdietan gure aplikazioa instalatuta egotea lortu dugu. Lan karga ere handituko zaigu eta ez gara horretan geratuko, akordio gehiago nahi ditugu», adierazi du Uribe-Etxebarriak.

Akordioa erdietsi izanaren garaio produktuen kalitatean eta hau saltzen jakitean egon dela uste du Sherparen sortzaileak. «Produktua nahikoa ona zela ikusi genuenean sektoreko enpresa handienekin hitz egiten hasi behar genuela pentsatu genuen; Samsung da Android sistema eragilea erabiltzen duten mugikorren artean enpresa handiena», azaldu du.

Aurrez kontaktua egina bazuten ere, Bartzelonan ospatu zen Mobile Word Congress batzarrean izan zuen enpresako goi karguekin zuzeneko harremana egiteko aukera. «Hara joan, ausartu, atea jo eta esatea da: ‘Begira, gauza bat kontatu nahi dizut’. Jendea harritu egingo litzateke ikusiko balu enpresa handietako zuzendari nagusiak zenbateraino dauden entzuteko prest», azaldu du. Hori bai, etxeko lanak egin zituen Bartzelonara abiatu aurretik: bertan zein zuzendari nagusi egongo ziren aztertu, euren aurpegiak ikasi, eta, garrantzitsuena, saltzen jakin. «Ongi saltzen jakin behar da eta ikusi behar dute euren tzako errentagarria den zerbitzu



eskaintzen ari zarela, bestela oso zaila da. Garrantzitsua da ere hartzailearen arabera zure mezua eraldatzen jakitea, berak entzun nahi duen hori esatea; ez da gauza bera Samsung, Telefonica edota Vodafone enpresei saltzea», azpimarratu du.


Samsungeko arduradunekin ez ezik, Apple etxearen sortzaileetako batekin ere egon da Uribe-Etxebarria Sherparen berri emanez. Pertsonalki bildu zen Steve Wozniak berarekin: «Esan zidan 30 urte edo zeramatzala egunean hoge enpresa inguru bistatzen. Gehienak onak iruditzen omen zaizkio, baina gure produktuaren berri entzutean sentitu omen zuen bere bizian bigarren aldiz oso ona zen zer baiten aurrean zegoela». Hori guztia esaten ari zitzaion bitartean, ezin sinetsita zegoela-eta, esandakoa errepikatu eta bideoz grabatzeko baimena eskatu zion Uribe-Etxebarriak Wozniaki. Hala, beretzako gordea duen bideo bat mantentzen du, bateren batek sinesten ez badio frogaz beza- la erakusteko.

Ordea, jakin badaki Apple etxearekin akordio bat erdiestea askoz ere konplikatuagoa dela. Baina euren asmoa hedatzen jarraitzea da eta horrek gero eta plataforma gehiagotan egotea eskatzen die halabeharrez. «Androiden gaude orain, baina handitzen jarraitu nahi dugu. Urrats ez urrats, ordea. Ondo egin dugun gauzetariko bat hori da eta aurrerantzean hala jarraituko dugu», dio, urratsak neurtzen ariko balitz bezala.

ARRAKASTAREN FORMULA

Egindako lan guztiaren oinarrian iraunkortasuna dagoela dio Uribe-Etxebarriak, esaten duenak batzuen belarritan txorakeria hutsa izatearen itxura har dezakeela jakin arren. «Nik formula bat daukat, arrakastarena. Beti esaten dut arrakasta eta porrotak ez daudela kanpoko zirkunstantzien menpe, horiekin hartzen dugun jarreraren menpe baizik», azaldu du.

Zentzu horretan, oso garrantzitsua zaio jarraikortasunaren ideia, jakitun baita kolpeak alde guztietatik hartzen direla.



Erandion dauka egoitza Sherpa enpresak. Hamabost lagun inguruko lantaldea daukate eta aplikazioa, azpikontratatu behar izan dituzten hainbat lan salbu, Euskal Herrian garatu dute. Luis JAUREGIALTZO | ARGAKI PRESS

«Ahaztu ezerezean zaudela iristen den inspirazio momentu horretaz, magikoa den ideia batek guztia konponduko dizun usteaz. Azken hiru urteotan etengabe borrokan ibili gara, iraunkortasunez, eta horrek ekarri gaitu gaur egungo leku honetara», azpimarratu du.

Guztiaren atzean, ordea, aitortzen du kalitatea behar dela, beti aurkakoak zaingo diren kanpo zirkunstantzia horiei aurre egiteko. Horretan, ordea, uste du ez direla besteak baino gutxiago, «zerbait izatekotan, besteak bezain azkarrak gara». Baina jarrean dago gakoak: «Uste dut jendea ez dela ausartzen proiektu berriak abiatzera handi egiten zaielako. Talentuan denok gara antzekoak, baina jarreraren ezin digute irabazi». Google du hizpide une oro lehiakortasunaz hitz egitean, euren Google Now aplikazioa baitute aurkari nagusi: «Googlek korri egiten badu, guk hegan egin behar dugu».

Uda giro gorria naziogintzan

Xabier Mikel Errekondo

Estatu espainiarreko botereek nazio bat eta bakararra dute

aitortzen, espainiarra. Hori ukatzen dutenak asko direla ezagutzea Madrilerako bidaietako sorpresatako bat izan da, oldarraldietatik nazio zanpatuak artifizialki josiaz sortua omen eta. Bada, naziogintzaz gure mugetatik hegoaldera pedagogiaren beharra badago ere, benetako afera Estatuko agintariekin dugu. Sua darion uda honetan jarriak ditugu begi bana Madrilerara eta Kataluniara. Irailaren 27ko Kataluniako hauteskundeetara zerrenda bateratua aurkeztu berri dute besteak beste herriar ezagun hainbatek; Pep Guardiola tarteko. Bejondeiela! Berehalakoa izan da ordea espainiar gobernukideen okada mindua. Pep Espainiako selekzioaren ospeaz baliatzen ari dela. Independentista izanik, jainko bakararra duela, «diruaren jainkoa», Barne ministroaren arabera. Kantzilerak, aldiz, «*Mas es menos*»... Eta uste genuen Gobernuak ez zuela irudimenik... Hau maila! Madrileko kide katalanek dioten moduan, hauek bai independentista ekoizleak! Baina, Felipe Borboikoak argi ezarri du zelai jokoa: Espainia batua eta Konstituzioa. Gainera, Estatuaren euskarri nagusi diren bi alderdiek Segurtasun Nazionaleko Legea aldatu dute, Madrilek dekretu soil batez erkidego bateko gobernuaren agintea lapurtu ahal izateko.

Independentziarentzat ez dago inolako aldebiko akordiorako aukerarik. Mezu argia eta irmoa. Beste aukerarik ez eta aldebakarreko erabakiz aitzinera ekin diote Katalunian. Eta, klik batez bederen, begi biak jarri zaizkit ene herrira begira. Egoera ezberdinak omen, baina helburu berera iristeko ba ote beste biderik? Beste helmuga bat ote du buruan EAJk? Akaso, berriro ere, EAEn eta, orain baita, Nafarroan kudeaketa hutsaren pagotxa? •



Gorka Zozaia
Kimikaria

Lau problema eta soluzio bat

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

Duela hilabete pare bat, egokitu zaigun bizimodu frenetikoaren aurrean «egotea»-ren garrantzia aldarrikatzen nuen. Komunikazio teknologia berrien eraginez, pantailaren kulturak irentsita, kontzentrazio gaitasuna eta berarekin ideia sakon eta konplexuak formulatzeko gaitasuna galtzen ari garela aipatzen nuen. Duela hilabete Bilbon ospaturiko International Conference on Thinking kongresuan (bi urtean behin ospatzen den hezkuntzari aplikaturiko neurozientzia bilkura) antzeko ondorioetara heldu ziren, besteak beste, dagoeneko *homo digitalis* bezala deskribatzen den egungo errealitate sozial berria aztertzean. Interesgarri bezain kezkarriak dira esparru horretan ematen ari diren ikerketak, baina gaurkoan ez noa horietan sakontzera. Nahiago dut, duela hilabete bi egin bezala, zutabe hau esperimentu bat egiteko baliatzea. Orduan, artikulua goitik behera irakurtzea proposatzen nuen, irakurraldi batean, kanpo estimuluak ekidinez eta burua soilik paperean kontzentratuz. Gaur, berriz, problema batzuk proposatzera nator, ziur asko behin baino gehiagotan irakurri beharko dituzuenak eta gerora buruan are eta gehiagotan izango dituzuenak datozen ordu eta egunetan. Hain zuzen, horixe da esperimentuaren helburua, ingurukoekin konpartituz edo bakarka, pentsamendu sakon eta konplexuari aukera bat ematea, lau problema hauen bidez:


- 1.- Bederatzi puntu lotzea:** Nahiko problema ezaguna da irudian jasotzen dena. Karretua osatzen duten bederatzi puntuok lau lerro zuzenekin lotzean datza, arkatza papereetik altxatu gabe. Nola da posible?
- 2.- Hiru etengailu eta bonbilla bat:** Beheko solairuan hiru etengailu ditugu eta horietako batek goiko solairuko bonbilla pizten du. Behetik ez dugu ikusterik argia piztu ote den. Nahi beste aldiz uki ditzakegu etengailuak, baina soilik behin igo gaitzke gora argia piztu den egiaztatzera. Nola jakin zein etengailuk pizten duen bonbilla?
- 3.- Hiru preso eta bost txapel:** Hiltzera kondenaturiko hiru presori azken aukera

bat eman asmoz, problema bat ezarri omen zien errege batek. Erregeak presoek hiru txapel zuri eta bi txapel beltz zituela esan zien, eta, segidan, presoek kolorea ikusterik ez zutelarik, txapel bana jarri zien buruan. Preso bakoitzak beste bi presoekin txapelak ikusteko aukera zuen, baina, aldiz, ez berea. Erregeak bere txapelaren kolorea asmatzen zuen presoak askatu egingo zuela agindu zien. Bada, lehen presoak «ez dakit» erantzun omen zuen. Bigarrenak, segidan, «ez dakit» erantzun omen zuen baita ere. Hirugarrena, aldiz, aske geratu omen zen bere txapela zuria zela asmatuta. Nola jakin zuen? (Ados, heriotza zigorretik libratzeko asmoz lehendabiziko bi presoek «ez dakit» esan baino kolore bat hautatu izana litzateke logikoena, baina ez doa hortik problemaren ebazpena... Horrela da kontakizuna eta kito!)

4.- Txanpon faltsua: Hamabi txanpon ditugu, denak itxuraz berdinak, baina horietako bat faltsua dela esan digute. Txanpon faltsuak pisu ezberdina duela ere esan digute, baina ez dakigu benetakoak baina gehiago ala gutxiago pisatzen ote duen. Balantza bat eman eta gehienez hiru pisaketa egiteko baimena

eman digute. Nola jakin dezakegu hamabi txanponen artean faltsua zein den?

Eta soluzio bat ere agindu dut izenburuan. Ez noa, noski, hemen problema bakoitzaz ebaztera –ni neu txanponekin nabil oraindik!–; hori heldu den artikuluan egitea da plana –hilabete barru gutxi gorabehera; hori bai, lo egin ezinik gelditzen bazarete egon lasai, nahiko problema ezagunak dira guztiak eta Internet edo liburuetan soluzioak topatzeko aukera izango duzue–. Amaitzeko, argibide bat laguntza gisa: soluzio partikular bakoitzaren gainera bada soluzio orokor bat, edo soluziobide bat hobe esanda: problema barruan katramilatu ordez, problematik irtetea, kanpotik begiratzea. Baieztapen bakoitzak esaten duenean nahastu ordez, esaten ez duenean ere jartzea arreta. Soluzioa, finean, ohituta gauden pentsamendu arin eta linealetik irtetea da, eta, horretarako, berriz ere, estimulu frenetikoetatik ihes egin eta une batez «egotea». Uda da, eta, izan oporretan edo bes-



{ koaderno } Laura Mintegi

Pertsonak helburu ala itu?

Lakuaren leloa entzutea eta, aldi berean, gizarte arloan egiten duen politika ikustea urtikaria sorrarazteko modukoa da. Gaixotzeko modukoa da entzutea “pertsonak helburu” eta gero gobernuaren “anti-pertsona” politika ikustea. Adibide gutxi batzuk. Jeltzaleek ez diete buelta eman diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko sozialistek ezarri zituzten baldintza estuei; hezkuntzan edo osasunean murrizketak egiten segitu dute; Gipuzkoan zerga politikan emandako aurrerapauso txikiak atzera bueltatu nahi dituzte Aldundira heldu eta berehala; aurreko lau urteetan Donostia hirian desjabetze bakarra burutu ez bada ere, jeltzaleak Udalera heldu eta hamar egunera burutu da lehenengo desjabetzea. Pertsonak helburu. Bai zera. Helburua da kapital lizun eta aseezinaren gose-egarria gogobetetzea. Pertsonak, bost.

Politikagintzan dagoen aire berria, ordea, pertsonon alde dator. Gero eta zailagoa da baretzea herritarren justizia nahia eta lau alderdiri uztea erabakimena. Kontsultak, galdeketa, erreferenduma eta partaidetzarako guneak erreklamatzeko dituzte herritarrek, eta parte hartzeri doaz modu masiboan. Aurreko belaunaldiak pasibitatea jada ez dago ondo ikusita. Etsipena (ez dago ezer aldatzerik) aukera bihurtu da (gauzak beste modu batera egin daitezke). Eta, batez ere, jende gehiagok partekatzen du aspaldiko aldarrikapena: politika serioegia da politikarien eskuetan uzteko.

Fisika kuantikoaren arabera, ez dago objekturik subjekturik gabe; edo, beste modu batera esateko, objektua banaezina da subjektutik, subjektuak eragin zuzena duelako objektuan.

Modu poetikoagoan esan daiteke, Nadine Gordimer idazleak zioen erara: ideiak ez dira bizi pertsonengandik kanpo. Hau da, munduan den edozerk, fisikoa edo mentala izan, ez du existentziarik ez bada norbaitek (pertsonak) pentsatu eta gauzatu egiten duelako. Nor gabe, ez dago zer.

Politikan (eta hainbat arlotan ere) ikusi izan dugu “zer” jarri nahi izan dela “nor” elementuaren gainetik, eta zeharo baztertu direla “norekin” eta “norentzat”, ja-

kina. *Nouveau roman* mugimenduak aurreratu zuen fenomeno: Alain Robbe-Grilleten “Les gommés” (1953) nobelan pertsonak diluitu egiten dira, ez dago istorioa kontatzen duen inor, pertsonaiek apenas ez dute lurere egonkorrik oinazpian, eta objektuak nagusi dira nobelan zehar. Neutroi bonbaren sindromea (1958) deitzen diot joera horri: N bonba jaurtikitzen denean ez da ezer apurtzen (H bonbarekin ez bezala), ez dago ohiko suntsiketarik. Pertsona guztiak hiltzen dira ioizko erradiazioaren erruz, baina bonba bota eta 48 ordura segitu ahal duzu jaten hildakoak utzitako platerean.

Gure garaia ez da ideia handiko garaia. Egungo garaiak pertsonon garaia behar luke izan; hala dio, behinik behin, Rubert de Ventos filosofo eta politikariak.

Hitz batean esateko, politika subjektibizatu behar dugu. Ideiek utzi behar diote elementu etereo izateari; gorpuztu, haragitu egin behar ditugu ideiak, pertsonon

Agintariak ikusleak nahiago dituzte ekintzaileak baino, politika espektakulu bihurtu dute, eta espektadoreak behar dituzte. Arazoa da agintarien erabakiek eragin zuzena dutela herritarrengan

iragazkitik pasarazi. Pertsonok izan behar dugu politikaren neurria, eta ez moldatu gizakiak estrategia makroekonomikoetara. Ezen borroka desigoal horretan pertsonak desegingo baititugu ekonomiaren engrana-jean. Grezia da horren paradigma europarra. Paradigma gehiago dira munduan zehar.

Agintariak, bitartean, ikusleak nahiago dituzte ekintzaileak baino, politika espektakulu bihurtu dute, eta espektadoreak behar dituzte, behatzaile hutsak. Arazoa da, baina, agintariak hartzen dituzten erabaki politikoek eragin zuzen eta bortitza dutela herritarrengan. Objektu izatetik subjektu izatera pasatzeko garaia da, eta horrek esan nahi du, batetik, nork bere burua gai ikusten duela erabakiak hartzeko, eta, bestetik, errealitatea aldarazteko gaitasuna duela begirada subjektiboa aplikatuta, fisika kuantikoan bezala. •

«Hezkuntza erabili beharko genuke jendarteko arazoak konpontzeko, ez rolak errepikatzeko»

Betaurreko moreak jantzita etorri zaizkigu Nagore Larrazabal eta Ibai Fresnedo, Udako Euskal Unibertsitatean ikastaroa eman berri: “Hezkidetza hezkuntzan: aldaketa sozialerako tresna”. Egia esan, behin betaurreko moreak jantzita, zaila da erantztea. Inguaruari begiratzeko modu jakina dakarte; esaten dugunak eta egiten dugunak zein norabide duen aztertzeko ariketa konzientea. Zertan ari naiz? Arrastaka dakargun eredu matxista indartzen edo eraisten?

Jendarte bestelako zutoinen gainean eraikitzekotan, beharrezkoa da denok betaurreko moreak jantztea, bereziki hezkuntza komunitatearen bueltan dabilzanek. Etorkizuna hezkuntzan dagoelako.

Etorkizuna hezkuntzan dagoela, aldaketa sozialerako tresna hezkuntza dela, parekidetasunak sustraiak hezkuntzan behar dituela... esan esaten da, baina serio hartzen al da?

Ibai Fresnedo: Hezkuntzan etengabe dauden murrizketak hor daude, eta horiek badute eragina. Ez genituzke ahaztu behar. Baina hezkidetza modan jarri den gaia denez, badirudi nolabaiteko bultzada eman behar zaiola erakundeetatik. Gure esperientzia pertsonaletik ikusten duguna da erakundeek beren gain hartzen dituztela historikoki mugimendu sozialarenak izan diren borrokak; planak edota egitasmo zehatzak jartzen dituzte martxan, baina, hortik aurrera, ez dago jarraikortasunik eta oso azalean geratzen da guztia. Partxe modukoak jartzen dira eta kito. Eskolan benetako eredu hezkidetzaille bat txertatzeak eskatzen du, lehenik eta behin, hezkuntza sistema osoa goitik behera aztertzea, metodologiak, zein planteamendu filosofiko eta etiko egiten diren... eta hori oraindik ez da modu erradikal eta integral batean eman. Paperean jasotzen da egin beharko litzatekeena,

NAGORE LARRAZABAL ETA IBAI FRESNEDO HEZKIDETZA HEZKUNTZAN

Udako Euskal Unibertsitatean jardun dira hezkidetzaz. Izan ere, garbi daukate jendarte eraldatzekotan sustraietara joan beharra dagoela. Eta sustrai horietako asko eskolaren bueltan errotzen dira.

baina falta da hori guztia praktikara eramatea, benetan horrekin bustitzea.

Nagore Larrazabal: Horrez gain, hezkuntzaren ikuspuntu zabala izan behar da kontuan, hezkuntza ez baita ikastetxeetara mugatzen. Komunitateko partaide guztiak gara hezkuntza eragileak eta denok subjektu aktibo bihurtu behar dugu jendartearen benetako aldaketa bultzatzeko: irakasleak, ikasleak, gurasoak, jangelako langileak, autobusekoak, garbitzaileak eta herriko eragile zein norbanakoak.

Izan ere, eskolaren bizkar karga dezente jartzen ari da azken urteotan.

I.F.: Hezkuntza sistemak daukan eredu androzentrikoak dakarrena da eskola bera instituzio bezala subjektutzat hartzen duela, baina ikasleak ez. Jendartearen antzeko zerbait gertatzen da gizon eta emakumeekin; emakumeen eskubideak lortu nahi ditugu baina oraindik subjektua gizonetzkoa da. Oso zaila da aldaketa ematea subjektua ez bada erdigunean jartzen eta bere nahiak, desioak eta beharrak ez badira aintzat hartzen. Hezkuntza sisteman horrela gertatzen da haurra bera ez delako erdigunean jartzen eta bere parte hartzea ez delako sustatzen. Nolabait egitura goitik dator; mandatuak, arauak, eginbeharrak...

Gure proposamena bestelakoa da; hezkuntza sisteman horizontaltasuna txertatu beharko genuke. Eta badakigu zaila dela, gobernu batek ezin dituelako kontrolatu egitura horizontaletan oinarritzen diren ikastetxe atomizatu horiek guztiak. Jakitun gara eguneroko praktikarako errazagoa dela homogeneousitatea. Eta hor sortzen da talka; hezkuntza sistema goitik behera deseraiki egin behar da eta berriaz zerotik hasi.

Hezkidetza irakasgai potoloa da, baina pauso txikiekin eman daiteke, ezta?

N.L.: Hezkuntzak jendartearen dauzkagun arazoak gainditzeko

eta jendarte bera eraldatzeko tresna bat izan beharko luke, eta ez behin eta berriaz jendartearen nagusitzen diren baloreak erreproduzitzera mugatzen den sistema bat; konformismoa, indibidualismoa, lehiakortasuna... Azken finean, botere-egituren mesedetara egongo diren pertsonak heztera bideratuta dago. Hezkidetza bada gauza horiei guztiei buelta emateko modua eta zeharka txertatu behar da egunerokoan; jarreretan, edukietan eta funtzionatzeko moduetan.

Nola susta dezakegu hezkidetza egunerokoan? Emaguzue adibide bat.

N.L.: Adibiderik onenak norberaren jarrerak aztertzean aurkitzen ditugu. Izan ere, gu ere bagara sozializazio agenteak eta, kontrako ahaleginik egin ezean, egun egonkortuta dagoen eredu sexistak birstortzeko joera hartzen dugu. Adibidez, neskak eta mutilak agurtzeko ditugun moduak ezberdinak izaten dira maiz; neskengana zuzentzerakoan “kaixo polita” esatekoa, itxura fisikoari edota janzkerari erreferentzia eginez. Aldiz, mutili beste gako batzuetan egiten diegu agurra, eskua zabaldu eta “eman bostekoa” esanez, esate baterako.

Neskekin eta mutilekin izaten ditugun jarrerak ezberdinak izaten dira maiz, eta horien bidez mezu eta balio ezberdinak transmititzen ditugu, genero rol eta estereotipoak indartuz. Pertsonak bere osotasunean era askean eta modu integralean gartzeko aukerak eskaini behar ditugu, eta horretarako ezinbestekoa da genero estereotipoak edota etiketatzeke joerak gure praktiketarik kanpo uztea.

I.F.: Horri curriculum ezkutua deitzen diogu. Badakigu badagoela curriculum formal bat, curriculum erreal bat –bestea aplikatzen denean izaten den benetako emaitza– eta, horrez gain, curriculum ezkutua ere badagoela. Jendartearen parte garen guztiok hain errotuta ditugun balio androzentrista, ma-



Argazkiak: Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

txista eta heteropatriarkal horiek modu inkontziente batean transmititzen ditugula. Inkontzienteak diren neurrian ezin dira identifikatu eta zuzendu. Gainera, jarrera horiek gero eta leunagoak eta ezutuagoak dira.

Esaten duzuenez, jaio orduko transmititzen zaizkie neska-mutikoei rol jakinak. Norbaitek esajeratutzat joko du hori.

N.L.: Jaio orduko, dituen genitalen arabera, gauza asko transmititzen zaizkio haur bati; besteak beste, neska edo mutila nola izan. Harremantzerako moduetan esate baterako, hitz egiteko erabiltzen dugun tonua edota tratatzen ditugun gaiak desberdinak izaten dira; neskei suabeago eta gozoago hitz egiten diegu, eta, mutilei, ozenago. Bestalde, haurrei egiten zaizkien opariak hor daude; zer

«Hain errotuta ditugu balio androzentrismoa, matxismoa eta heteropatriarkal horiek, modu inkontziente batean transmititzen ditugula»



oparitzen zaie neskei eta zer mutilei? Arropa berdina erosten dizkiegu? Errieta egiterakoa berdina egiten diegu neska eta mutilei? Eskolaz kanpoko zein jardueratan apuntatzen ditugu neskek eta zeinetan mutilak? Nor joan ohi da judora eta nor pianoa jotzera? Haiengan jartzen ditugun itxaropenak, espero ditugunak, berdina ote dira?

Beraiekin nola erlazionatzen garen behatzea besterik ez dago transmititzen ditugun detaile eta estimulatu ditugun jarrera ezberdinez ohartzeko. Espektatiba ezberdin horiek presente daude sozializazio prozesu guztien zehar, genero estereotipoak indartuz eta iraunaraziz. Izan ere, zenbat gauza egiten ditugu ezberdin neskek eta mutilek? Abiapuntu horretatik ezberdintasunak naturalizatzen

dira eta ahaztu egiten dugu batzuetan, egiten dugunak egiten gaituela.

Eta eskola ere sistema horren parte da.

I.F.: Adibide bat jarriko dut. Eskolan, Haur Hezkuntzan, komun berdina erabiltzen dute neskek eta mutilek, eta elkarrekin gainera. Lehen Hezkuntzan banatu egiten dira neskek eta mutilak. Horren atzean zein intentzio egon daiteke? Ba segur aski desira heterosexuala erakitzen laguntzea. Neskek eta mutilak banandu, bata bestearen begietatik ezkutatu eta jakin mina piztu. Estrategia bat da? Gure ustez bai. Dena egituratuta dago jendarte eredu zehatz bat bat-batean ager dadin. Eta agertzen da bat-batean, baina ez besterik gabe, nolabait programatuta dago.

Betaurreko moreak jantzi behar omen dira. Nola egiten da hori?

N.L.: Betaurreko moreak jantzia norberak egin beharreko ariketa kontzientea da. Ariketa horretan dena zalantzan jarri behar da; norberaren jokaera, desioak, nahiak... eta hortik deseraikitzen hasi. Norberak izan duen sozializazio prozesua ere aztertu behar da. Betaurreko moreak jantzea ezin da azalean geratzen den ariketa bat izatera mugatu, modu kritiko batean prozesu pertsonal bati ekiteko gonbidapena delako.

I.F.: Behin betaurreko moreak jantzita, ezin dira erantzi gainera. Egunerokoan gauzak begiratzeko modua aldatzea da gakoa eta oso lotuta dago norberak erabiltzen duen komunikazio motarekin, gorputz adierazpenarekin, harremanak eraikitze-

ko moduarekin, etengabe atxikitzen dizkiguten genero rolak berrikusi eta aldatzearekin... Baina ez dago formula magikorik. Gai hau oso lotuta dago jendartearen garapenarekin eta oso zaila da formula magiko karrratu eta itxiak aplikatzea. Etengabeko espermentazioa da.

N.L.: Eta espermentazio horretan nekatu ere egin gaitezke. Baina ez dugu ahaztu behar al daketa hauek ez direla epe motzekoak, emaitzak pixkanaka ikusiko ditugula eta luzera begira etorriko direla. Pentsa zenbat urte daramatzen lanean feminismoak hezkidetzaren aldarria egiten. Aldaketak apurka egiten dira. Hezkuntza komunitateko kide garenok oso garbi izan behar dugu etengabe gure jarrerak berrikusi behar ditugula, zuzendu daitezkeenak zuzendu eta esku hartze berriak programatu. Etengabeko prozesua da.

Jendartean hain hedatuta da goen «berdintasun faltsuaren» ideia ere hor dago. Zuek gazte txoeekin lanean ari zarete. Zer ikusten duzue?

N.L.: Ikasleek oso ondo dakite zein den diskurtso zuzena, zer den politikoki zuzena eta zer den esan behar dutena. Aniztasuna, eskubide berdinak... balore horiek zeintzuk diren badakite, baina, praktikan, beren harremantzeko moduak ikusten dituzunean nabarmenak dira genero rol eta botere harremanak. Egia da al daketa batzuk ematen ari direla, haurren artean aniztasun handiagoa ikus daiteke, baina ezin da joera hori orokortu.

I.F.: Aniztasun gehiago egon badago, baina jendarte bezala oraindik kostatu egiten zaigu aniztasun hori ikusaraztea, ku-deatzea eta balioa ematea.

Gaztetxoek rolak errepikatzen dituztela diozue. Indarkeria matxista kasuetan maiz oso gazteak izaten dira protagonista. Zer ari gara gaizki egiten?

N.L.: Gauza asko egiten ditugu ondo, baina zaila da, patriarkatua hain da kapaza testuinguru berrietara egokitzeko eta zirriki-

tu berriak aurkituz bizirauteko... Merkatu logiken laguntzarekin eta oso modu sotilean gainera... **I.F.:** Globalizazioaren ondorioz mundu osoan gertatzen ari den fenomeno hor dago. Industria kultural guztiek sekulako pisua hartu dute mundu mailan: gaur egun hemen AEBetan entzuten duten musika berdina entzuten dugu; film berdinak ikusten ditugu; berdin janzten gara... balio asko globalizatu egin dira. Eta industria kultural handi horiek harremantzeko eredu jakinak bultzatzen dituzte, janzteko modu jakinak, bizitzeko erak... eta askatasunaren kontzeptu faltsu baten eskutik hipersexualizazio fenomeno bat

«Neskak eta mutilak agurtzeko ditugun moduak ezberdinak izaten dira maiz. Neskei 'kaixo polita' esaten diegu, itxura fisikoari edota janzkerari erreferentzia eginez. Aldiz, mutilei beste gako batzuetan egiten diegu agurra, eskua zabaldu eta 'eman bostekoa' esanez, adibidez»



etorri da. Zabaltzen diren rolak, mezuak eta kanonak oso markatuak dira. Norabide batzuetan aurrera egin dugu, baina beste batzuetan ez. Areago, eredu zenbait indartu egin dira, eta ez da parekidetasunaren mesedetan izan.

Hezkidetzak hain garrantzitsua izanik, eraiki nahi dugun jendartearen zutoin izanik, nola ez dauka presentzia handiagoa Irakasle-eskoletan?

N.L.: Irakasle-eskoletan gai zentrala izan beharko luke aspalditik. Askotan irakaslearen sentsibilitatearen esku geratzen da gaiaren lanketa eta pertsona horien lanaren aitortza egiten dudana arren, ezer gutxi lor dezakegu ez bada zeharka lantzen den gai bat. Ez delako soilik irakasgai bat, baizik eta ikuspegi bat.

I.F.: Orokorrean lan mundu osoan txertatuta egon beharko luke, oraindik indarrean baitago lan banaketa sexual oso garbia. Badira gizona zkoentzat lanbideak eta emakume zkoentzat lanbideak. Txikitandik transmititzen diren gauzak dira. Baina egia da haurraren garapenarekin lotuta dauden alorretan hezkidetzak presentzia erabatekoa izan beharko lukeela. Eta, noski, Irakasle-eskoletan.

Nolakoa da nahi duzuen eskola eredua?

N.L.: Denontzako eskola. Benetan denontzat. Horrek inplikatzeko dituenarekin.

I.F.: Sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak ezabatzen lagunduko duena; harreman parekideak sustatuko dituen; ikasle bakoitzari erabat garatzeko aukera eskainiko diona; curriculumean emakumeen ekarpena jasoko duena; ikasleen autonomia indartuko duena, bai arlo pribatuan bai publikoan; orientazio ez sexista eskainiko duena; genero indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztien prebentzioan lan egingo duena eta mikromatxismoen arretoa berezia eskainiko diona. Hori da helmuga eta bidean serio abiatu beharra dago.

Kexak kutsakorrek dira

Maidar Iantzi Goienetxe

Erredakzioko leihio ondoan itsatsita dugu Quinoren bineta bat. Hagitz ona da. Medikuak pazienteari aholkatzen dio bizitza lasai hartzeko, baina hori erraten dion bitartean gero eta urduriago eta sutuago jartzen da bera, kea ateratzen zaio belarrietatik eta paziente gaixoari lepotik helduta eta oihuka bukatzen du. Sarri bertzeengan ikusten ditugunak ez ditugu gudan ikusten, batez ere gaizki egiten ditugun gauzak.

Kexekin ere antzeko zerbait gertatzen zaigula uste dut, ez gara konturatzen zenbat protestatzen dugun. Gainera, kexak kutsakorrek direlakoan nago. Berriki, arratsalde batean, kontent-kontent nindoan Antiguatik Donostiako zentrorra, elkarriketata bat nuen, denbora nuen, eguraldi ona, eta izozki bat jateko ilusioarekin joaki nintzen. Autobus urbanora igo eta gidaria kexa batean zihoan, esajeratu gabe, bide osoan maldizioka: trafiko nahasia zela, beroa zela... gurgildun aulkian zebra bidea gurutzatzen ari zen lagunari esperatzeko pazientziarik ere ez zuen! Ez nintzen nahi orduko jaitsi, eta lurra zapaldu bezain pronto madarikatzen hasi nintzen ni ere, dena gaizki atera zitzaidan: izozkia txarra zegoen, kaleetan ezin nintzen ibili turistekin txokatzen nintzelako, eta, gainera, halako batean, batek atxis egin eta blai egin ninduen!

Autobus gidari erretxin hark kutsatu ninduela pentsatu nuen. Egia izanen da kexak kexa erakartzen duela, baita gauzak gaizki ateratzeko aukerak handitu ere. Juanjo Lertxundi usurbildarrak, Donostiako Gausartu zentroko irakasleak, kexarik gabeko mundu bat amestu eta erronka bat bota du: pasatuko zenituzke 21 egun kexatu gabe? Proiektuaren inguruko informazioa, Gausartuzentroa.com atarian. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Jean Pierre ERGUY. EUSKAL MUSEOA. BAIONA

MERKATU EGUN EDERRA DONIBANE GARAZIN

XIX. mendearen amaieran iritsi zen trena Donibane Garazira, herritarren parte bat aurka bazegoen ere. Inguruko komunikazio sarea asko hobetzeaz gain, turismoa ere eraman zuen Nafarroa Behereko txoko eder horretara, ikusgarria bere gotorlekua eta arkitektura zaindua tarteko. Garai horretan, baina, Donibane Garaziko eta inguruko herritar askok hartu zuen Ameriketarako bidea. Argazkian, 1895. urteko merkatu egun bat. Irudia Jean Pierre Erguy argazkilariak atera zuen, XIX. mende amaieran Donibane Garazin bertan estudioa zeukan-eta. Erguyren lan gutxi iritsi dira guganaino, baina iritsi direnak kalitate eta estetika oso zaindukoak dira.



Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Enpresa teknologikoen «lobby»-ak

Consumer Watchdog webgunean argitaratu berri dira enpresa teknologiko nagusienek xahutzen duten diru kopuruaren gaineakoak.

Ameriketako Estatu Batuetako gobernuko *lobby*-az ari da Consumer Watchdog, 2015eko bigarren seihilekoari dagozkion datuekin. Gardentasun prozedura baten baitan, enpresek kongresu estatubatuarrari bidali informazioan oinarritzen da eta, Consumer Watchdog beraren arabera, Google, Amazon, Facebook eta Microsoft enpresak dira gehien gastatzen dutenak.

Egun, Google omen da, guztien artean, gobernuko *lobby*-ari aurrekontuko partida handiena eskaintzen diona, 4,69 milioi dolarrekin. 2014ko bigarren seihilekoan 5,29 milioi dolarrekoa zen, hortaz, jaitsi egin da eta Google da, Consumer Watchdog-en arabera, iaiztik aurrekontua gehien jaitsi duena. Microsoft enpresak ere jaitsi egin du, 2015eko bigarren seihilekoan 2,24 milioi gastatuz, iaz baino %4 gutxiago. Cisco ere %26 jaitsi du gastua, azken seihilekoan 530.000 dolar gastatuz. Kontrako norabidean, Amazon da gastua gehien igo duena, %103 igoz (bikoiztu egin du!). Guztira, 2,15 milioi dolar gastatu ditu 2015eko bigarren seihilekoan, iaz, garai berean, 1,06 milioi gastatu zituelarik. Apple berak ere igo egin du, %42 zehazki, 1,23 milioi dolarrera iritsiz. Facebook-ek, bere aldetik, 2,69 milioi dolar gastatu ditu, igoera txiki batekin, iaz 2,12 milioi dolar baitziren partida berean. IBM eta Intel enpresek ere igo egin dute gastua, 2015eko bigarren seihilekoan 1,81 (%7 igo) eta 1,29 milioi dolar (%66 igo) gastatuz, hurrenez hurren.

Apple etxean zentratuz, Steve Jobs zuzendari exekutibo ohia ez zen gobernuko *lobby*-en oso laguna, nahiz eta iTunes plataformarako Europa mailako prezioak adosteko funtzionario europarrekin biltzen zela esaten den. Egun Tim Cook da zuzendari exekutiboa, eta publikoki adierazi izan du Ameriketako Estatu Batuetako gobernuarekin elkarlan estuagoa nahi duela. Zentzu horretan, Claire Thwaites da Apple etxeko gobernuko kontuen zuzendaria. Baina Apple barnean benetako indarra Administra-

zio Kontseiluan dago. Hor dago, esaterako, 2003tik, Albert Al Gore, Ameriketako Estatu Batuetako lehendakariorde ohia. Gorek, 2014an soilik, 300.000 dolar baino gehiago jaso zituen Apple etxearen eskutik. Administrazio Kontseilu berean daude Robert A. Iger (Walt Disney Company), Ronald D. Sugar (Northrop Grumman Corporation) eta Susan L. Wagner (Blackrock).

Apple gehien kezkutzen duten gaiak ekonomia digitalarekin, jabetza intelektualaren eskubideekin eta pribatutasunarekin lotuta daude. Ez da gutxiagorako: Mac-a diseinatu zuen, munduko ordenagailu pertsonal onena kontsideratzen dena; iPod-arekin musika digitalaren merkaturia irauli du; iPhone eta App Store-rekin gailu mugikorrak berrasmatu ditu; eta iPad-arekin ordenagailu eta gailu mugikorren etorkizuna definitzen ariko balitz bezala da.

Apple eta Amazon dira diru partida gehien igo duten enpresak. Amazon berak bikoiztea erabaki du. Ez da broma. Beharbada erabaki politiko garrantzitsuak hartzeko garaiak datozelako. Beharbada *lobby*-ak funtzionatzen duela

ikusi dutelako, eta partida hori igotzeak merezi duelako. Edota, Apple beraren kasuan bezala, produktu berrien merkaturatzearen eskutik dator igoera hori, Watch erlojuarekin gertatu berri den bezala. *Lobby*-ak ez baitira patenteen gaineko erabaki politikoetan eragiteko soilik. *Lobby*-ak marketina egiteko ere baitira. *Lobby*-en bitartez lortzen dute enpresok gobernuek produktu zehatz batzuk erostea, edota gobernuek, zeharka, produktu bat promozionatzea, esaterako, filmetan gobernuko erakundeak Apple etxeko produktuak erabiltzera eramanez. Are, Apple berak langile gehiago kontratatzea eskaini izan du, zergak jaistearen truk.

Finean, *lobby* lana egiteak presioa egitea inplikatzeko du, pertsonak horretan modu eskusiboan jarduteko kontratatzea, gobernu batek hartuko dituen erabakiak enpresa (talde) baten onurarako izan daitezen, betiere legearen barruan. Eta aipatu zenbakiak kontuan hartzekoak dira, enpresa teknologiko nagusiak zenbaki horietan mugitzeak, *lobby*-ek benetan eragina dutela adierazten baitu. Antza, ideiak handiek baino, billete-zorro handiek agintzen dute. •



Enpresek dirutzak gastatzen dituzte AEBetan presio taldeetan. Irudian, Apple Watch erlojua.

AFP

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



GAUR8 *ireki gure leihoa*



5 0725

9